

Laburbilduz, helburua elkar ulertzea da eta gatazka bideratzea, errespetuz hitz eginez eta sentimenduak adieraziz. Komunikazio estilo hau erabiltzen duten pertsonak sentimendu, desio eta iritzia arazorik gabe adierazten dituzte, era zuzen batean. Besteen buruak errespetatzen ditu berearekin batera. Komunikazio asertiboa izateko, hainbat teknika daude, horietako bat mezuak lehenengo pertsonan ematea dira, **Ni**-mezuak hain zuzen ere.

Baina zer da gatazka bat? Zertarako balio digu honen inguruko informazioa? Irakaslea gatazka baten aurrean nola jokatu beharko luke? Egia al da gatazka bera prozesu bat dela? Honako galdera horiei erantzun bat emateko asmoz...

Gatazkak oso ohikoak dira eskolan eta baita kalean ere. Izan ere, pertsona guztiak desberdinak garenez (aniztasuna), gatazkak saihestezinak dira. Pertsona bakoitzak bere eskema propioak ditu eta ezin du pertsona guztiekin bat etorri.

Baina lagunen arteko gatazkak ez dira kaltegarri moduan ikusi behar. Ikuspegi positiboa bilatu behar zaio, gatazka bakoitzaren alderdi ona bilatu behar da eta bakoitzetik zerbait positiboa bilatu. Gatazkak aztertu egin behar dira eta irtenbideak bilatu. Gatazkak ikasteko prozesu moduan ikusi behar dira, era positiboan ebazten ditugunean bizikidetzazintzoa bermatzen arituko gara. Bizikidetzaz, gatazka eraikitzaileen bidez osatzen da, hots, ongi kudeatutako gatazketatik sortzen da bizikidetzaz. Beraz, gatazkak ikaskuntzarako gune moduan ikusi beharko ditugu eta ikastetxeetan denbora eskaini beharko dugu hauen kudeaketarako.

Edozein proiektutan harremanak eta helburuak komunak izanez gero, kooperazioan jardun ahal izango dugu lan lehiakortasuna alde batera utziz. Irakasleak elkarlana sustatu beharko du baliabide ezberdinak erabiliz. Komunikazioa egokia izateko: entzute aktiboa sustatu beharko da, galderak egin eta hauek argitu beharko ditugu, hitza hartu eta erantzunak bilatu beharko ditugu, besteak beste.

Bitartekari lanak egiteko gatazka nola kudeatu eta momentu horretan, 3. pertsona baten laguntza beharko dugu. Pertsona hau bitartekari lanak egiteko gatazka gertatutako momentuan bertan egondako bat izatea. Bere lana konponbidea aurkitzea izango da modu justu batean. Bitartekaria nekez izango da pertsona neutroa, izan ere, denok ditugu gure eskemak, baina alde bati arrazoia ematea saihestu beharko du. Bitartekari izateak ez du esan nahi soluzioak eman behar dituela. Honen lana pertsonen artean enpatia sortzea izango da eta ez soluzioak ematea.

Esaldi honekin amaitzea gustatuko litzaidake *“Los conflictos existen siempre, no trateis de evitarlos sino de entenderlos”* (Yutang Lin).

Bibliografía

- Cascón, P. (2003). Educar en y para el conflicto. *Universidad Autónoma de Barcelona*.
- Eusko Jaurlaritzaz. Lehen Hezkuntzan aniztasunaren trataerari heltzeko orientabideak.
- -Martinez, B. (2003). Educación en la diversidad y cambio educativo. Donostia:
- Gipuzkoako Berriztapen Proiektuen II. Jardunaldiak.
- Muñoz, Y. Ramos, M.E. Romera, C. y GEUZ. Elkarriketarako eta eguneroko gatazkak konpontzeko gida.
- Sansinenea, P. (d.g.) Irakasle-ikasleen arteko harremanak.